



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

OPOSIZINOAK JOAN DAN ASTEAN ERAITSI EBEN AMOREBIETA-ETXANOKO FORJAS ERAIKINA BABESTEKO ESKATUKO DAU BARRIRO

- **Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek atzera bota dabe Elkarrekin Bizkaiaren eta EH Bilduren arauz besteko proposamena; proposamen horretan, Eusko Jurlaritzari babes-espeditente bat instruitzea eskatzeko eta eraisteko lizentzia eteteko eskatzen jakon Aldundiari.**

(Bilbon, 2021eko urriaren 15ean). Bizkaiko Batzar Nagusiek atzera bota dabe gaur EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaia batera aurkeztutako arauz besteko proposamen bat. Euskara, Kultura eta Kirol Batzordean eztabaidatu da, eta hau eskatzen eutsan Foru Aldundiari: *“Eusko Jurlaritzako organu eskudunari eskatu deiola ondasuna babesteko espeditentea instala daiala, eta, ondorioz, indarrean dagon edozein eraispen- edo narriadura-lizentzia, edo Forjaseko Bulego Zaharrak izeneko ondasunaren ganean eska leiteken edozein motako lizentzia kautelaz eten daitela”*. Ekimena ez da onartu, kontrako 9 botogaz (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), aldeko 4 botogaz (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) eta abstentzino bategaz (Bizkaiko Talde Berezia-PP).

Garagarrilaren 1ean erregistrau zan oposizinoko talde bien ekimenak, Amorebieta-Etxanoko Forjas eraikinak babes ofizialen bat izateko izapideak hasi gura ebazan, *“balio interesgarria”* daukalako, Hector Hernandez talde moreko batzordekideak defendidu dauenez. *“Eraikin historikoa da, XX. mendeko industrializazio prozesuan erreferentea eta eskualdeko familia askoren lantoki izandakoa”*, ganeratu dau Bea Ildardia EH Bilduko bozeroaleak, eta eraisketea *“gauzez eta azpikeriaz”* gauzatzeko modua kritikau dau. Eduardo Andrade Bizkaiko Talde Bereziko ordezkari bakarrak be bat egin dau *“eraikina bertan behera ixteagaitik eta erakundeen hutsuneagaitik”* egindako kritikeagaz, baina abstenidu egin da, eraikina eraitsita egonda proposamena babestea *“neurritz kanpoko”* jarrera izango litzatekelako.

Kontua da Foru Gobernua babesten daben talde biek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, ez dituela oposizinoko taldeen errazoiak aintzat hartu eta urriaren 7an eraisten hasi ziran eraikin bat babestearen kontra bozkatu dabela. Alderdi biek azaldu dabenez, azken egunetan gertatutakoak *“proposamena helburu barik ixten dau”*, baina Mikel Bagan batzordekide jeltzaleak zehaztu gura izan dau, Kultur Ondarearen ganeko Legearen 7. artikuluan oinarrituta, edozein personak edo Batzar Nagusietako taldek daukala kultur ondarea babesteko Eusko Jurlaritzaren –babes-arloan eskumena daukan administrazioa– aurrean jarduteko legitimazioa. Eta Udalaren aurrean be egin daike, erakunde hori dalako urigintza-arloko eskuduna.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Azkenik, arauz besteko ekimenak orain 100 urte Forjas enpresea hartu eban eraikinak izan dauen amaiera bera izan dau, baina proposamena egin daben taldeek Batzar Nagusietan ekimen horregaz jarraituko dabela agindu dabe, *“modu sinbolikoan bada be”*.

GUGGENHEIMEKO GARBITZAILEAK

Elkarrekin Bizkaiak Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzendutako ahozko erantzun-eskearen bidez iritsi da Guggenheim museoko garbitzaileen greba Bizkaiko Batzar Nagusietara. Hector Fernandez Elkarrekin Bizkaia taldeko batzordekideak *“hilebeteak”* daroazan lan gatazka horren inguruko balorazinoa eskatu dau.

Diputatua, beharginen aldarrikapenen eta greba-eskubidearen aurrean *“errespetua”* adierazotera mugatu da, eta ostean esan dau ez dala bakarrik Guggenheim museoaren arazoa, beharginen eta enpresaren arteko eta sektoreko negoziazio-prozesuan dagon gatazkea baino, eta aldeak asebeteko dituan konponbide batera iristea gurako leukela.

Halanda be, talde moreak, Foru Aldundiaren *“konpromiso handiagoa”* eskatu dau gatazka konpontzeko; izan be, foru erakundeak, kontratuz ez bada be, *“erantzukizun instituzionala”* dauka museoko patronatuko kide moduan. Fernandezen berbetan, Aldundiaren *“bandera”* dan proiektu batek ezin ditu garbitzaileak aparte itxi, beharginek *“orain 20 urteko soldata bera”* kobretan dabela eta sektorean *“% 50eko”* soldata arrakalea dagola esan dabelako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA OPOSICIÓN INSISTIRÁ EN PEDIR LA PROTECCIÓN PARA EL EDIFICIO FORJAS DE AMOREBIETA-ETXANO, DERRIBADO LA SEMANA PASADA

- Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos rechazan la proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu en la que se pedía instar a la Diputación a solicitar al Gobierno vasco que instruyera un expediente de protección y la suspensión de la licencia de derribo.

(Bilbao, a 15 de octubre de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado hoy una proposición no de norma conjunta de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, debatida en la comisión de Euskera, Cultura y Deporte, que pedía instar a la Diputación Foral “a solicitar al órgano competente del Gobierno Vasco que instruyera expediente de protección del bien con la consiguiente suspensión cautelar de cualquier tipo de licencia de derribo o deterioro en vigor o que pudiera solicitarse sobre el bien denominado Antiguas Oficinas de Forjas.” La iniciativa ha sido rechazada por 9 votos en contra (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), 4 votos a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia) y 1 abstención (Grupo Mixto-PP Bizkaia).

La propuesta de los dos grupos de la oposición, registrada el 1 de julio, pretendía iniciar los trámites para que el edificio de Forjas, en Amorebieta-Etxano, contase con algún tipo de protección oficial debido a que tiene “un valor interesante”, ha defendido el juntero de la formación morada Héctor Hernández. “Es un edificio histórico, referente en el proceso de industrialización en el siglo XX y lugar de trabajo de muchas familias de la comarca”, ha añadido la portavoz de EH Bildu, Bea Ilardía, quien ha criticado el modo de materializar el derribo “con nocturnidad y alevosía”. El único representante del grupo Mixto-PP Bizkaia, Eduardo Andrade, se ha unido también a la crítica “por el abandono de este edificio y el vacío institucional”, si bien se ha abstenido porque apoyar la propuesta con el edificio ya derribado, sería una postura “desmesurada”.

El caso es que los dos grupos que apoyan al Gobierno foral -Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos- no han atendido las razones de los grupos de la oposición y han votado en contra de proteger un edificio que no existe ya, puesto que comenzó a derribarse el pasado 7 de octubre. Ambas formaciones han explicado que lo acontecido en los últimos días “deja sin objeto la proposición”, si bien el juntero jeltzale Mikel Bagan ha querido matizar que, en base al artículo 7 de la Ley de Patrimonio Cultural, cualquier persona o grupo juntero está legitimado para actuar en defensa del patrimonio cultural ante el Gobierno vasco, administración competente en materia de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

protección. Y también –ha añadido- *“lo puede hacer ante el ayuntamiento que es el competente en materia urbanística”*.

Finalmente, la iniciativa no de norma ha tenido el mismo final que el edificio que albergó la empresa Forjas desde hace 100 años, si bien los grupos proponentes han prometido continuar en las Juntas Generales con dicha iniciativa *“aunque sea de manera simbólica”*.

PERSONAL DE LIMPIEZA DEL GUGGENHEIM

La huelga del personal de limpieza del museo Guggenheim ha llegado a la Cámara vizcaína a través de una pregunta oral de Elkarrekin Bizkaia dirigida a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao. El juntero de Elkarrekin Bizkaia, Héctor Fernández, ha pedido una *“valoración”* con respecto a este conflicto laboral que dura *“meses”*.

La diputada se ha limitado a manifestar su *“respeto”* a las reivindicaciones de las trabajadoras y al derecho de huelga, para después desear que se llegue a una solución que satisfaga a las partes, en un conflicto que no es un problema *“exclusivo”* del Guggenheim, sino que lo circunscribe a un proceso de negociación entre trabajadoras y empresa, así como en la propia negociación del convenio sectorial.

La formación morada ha pedido, sin embargo, *“mayor compromiso”* de la Diputación para resolver el conflicto, ya que la institución foral, aunque no de manera contractual, *“tiene una responsabilidad institucional”* como miembro del patronato del museo. Un proyecto que es *“bandera”* de la Diputación no puede estar, según Fernández, al margen de las trabajadoras de limpieza, que dicen que cobran *“el mismo sueldo que hace 20 años”*, y que encuentran una brecha salarial de género *“del 50%”*.